

EXAMEN PRACTICO A

PREGUNTA 1.-La Sra. X solicita al Departamento de Agricultura de la Diputación Foral ayuda económica por 20.000 euros, de acuerdo con lo establecido en los Planes de Ayuda al Sector Agrario. La citada solicitud se presenta incompleta; en consecuencia, el Departamento de Agricultura requiere a la persona interesada mediante escrito con acuse de recibo que subsane las faltas detectadas.

a) ¿Qué plazo tiene la Sra. X para subsanar las mencionadas faltas? (0,20 puntos)

b) ¿Desde cuándo comienza a contar el plazo? (0,20 puntos)

La Sra. X subsana las faltas y continúa la tramitación del expediente formulando el Jefe de Servicio de Desarrollo Agrario la correspondiente propuesta de resolución desestimatoria.

c) ¿Qué órgano de la Administración Foral resuelve el expediente? (0,20 puntos)

La resolución dictada es notificada con acuse de recibo a la Sra. X

d) ¿Qué actuaciones puede llevar a cabo la Sra. X contra la desestimación de la solicitud de ayuda, en qué plazos y ante qué órgano? (0,40 puntos)

PREGUNTA 2.-Tienes que dirigir un tratamiento fitosanitario a realizar en la plantación de frutales y vid e identificada en el documento **Anexo I**. Como puede observarse la misma es colindante con una carretera, accesos, viviendas y un arroyo. La plantación está en plena producción y se va a realizar el primer tratamiento de la campaña.

El tratamiento se va a realizar próximamente en el viñedo, el equipo a utilizar en el tratamiento es el que figura en el documento **Anexo I**. El equipo dispone de todos los elementos de control necesarios para realizar correctamente el tratamiento.

Se pretende realizar un tratamiento fungicida, eficiente con criterios de respeto ambiental y con la suficiente eficacia para obtener una buena producción minimizando los riesgos ambientales.

a) Elabora un programa de controles, regulaciones y otros elementos a tener en cuenta en el equipo para conseguir el tratamiento deseado. (1,00 punto)

b) ¿Qué cuestiones tendrías en cuenta para minimizar los riesgos ambientales? (1,00 punto)

PREGUNTA 3.-Eres la persona responsable de una Oficina Comarcal Agraria y recibes la consulta de una persona que pretende poner en marcha una explotación ganadera de vacuno de carne en Bizkaia y acogerse a la agricultura ecológica. Para ello va a adquirir próximamente el ganado y terrenos oportunos. Concretamente solicita información sobre el proceso, trámites y cuestiones relativas para conseguir la certificación en ganadería ecológica en Euskadi, y además te pide que le asesores sobre el cuaderno de explotación a cumplimentar.

Elabora el proceso de trámites para conseguir dicha certificación, informándole a su vez de los organismos que intervienen en los distintos trámites, así como los apartados a cumplimentar del cuaderno de explotación por parte del ganadero para este tipo de explotación. (1,00 punto)

PREGUNTA 4.-Eres la persona responsable de un centro de gestión y un joven agricultor te plantea varias cuestiones relativas a su explotación ganadera que ha puesto en marcha recientemente. El ganadero dispone de varias hectáreas de pradera natural que las aprovecha a diente, y también henifica y ensila. Te plantea la siguiente consulta:

Te presenta un boletín de análisis de ensilado de su explotación y te solicita que le informes sobre las características y calidad del silo obtenido.

Materia seca	18,5%
Acidez (ph)	5,1
Amoníaco (NH ₃ /NT)	15,3%
Digestibilidad	60%
Fibra(FADM)	37,2%
Proteína (PB)	12,9 %
Cenizas	10%

Evalúa los distintos parámetros y comenta la calidad del ensilado. (1,00 punto)

PREGUNTA 5.-Eres la persona asesora de una explotación vitícola de 5 hectáreas, que consta de una parcela homogénea y acogida a la D.O. Bizkaiko Txakolina. La variedad de uva es la Hondarribi Zuri. La vendimia se va a realizar próximamente, y hasta la fecha la evolución sanitaria ha sido correcta y con una maduración homogénea en toda la parcela.

En un control previo, 1-2 semanas antes de la posible fecha de vendimia, los datos obtenidos han sido:

- Grado alcohólico probable: 9,13
- Acidez total tartárica: 15,9

Se pretende elaborar un txakoli con uva de máxima calidad, para lo cual deberás elaborar un programa de controles a realizar para determinar la fecha óptima de vendimia, describiendo la metodología empleada así como los índices tenidos en cuenta. (1,00 punto)

PREGUNTA 6.-Con el fin de asesorar a un fruticultor en la Oficina Comarcal Agraria de Gernika, en relación a la realización de una plantación de kiwi en una parcela de 12.000 m² de superficie y 10.000 m² de superficie real de cultivo.

Calcular el número y las características de los plantones que tiene que pedir el fruticultor al viverista considerando que el sistema de entutorado es el de "T-bar" y el marco de plantación en el que se va a realizar la plantación de kiwis es el más generalizado en Bizkaia. (1,00 punto)

PREGUNTA 7.- La titular de 34 años propietaria de una explotación familiar que se dedica a la cría de ganado vacuno de carne ubicada en Bakio, obtiene más del 50% de su renta total de la actividad agraria.

La pendiente media de la explotación es del 10%, la cota sobre el nivel del mar es de 105 m., la distancia desde la explotación a la carretera comarcal es de 1.5 km., la carga ganadera es menor de 1.4 UGM/ha. y de la titular dependen económicamente dos personas.

Ha realizado la declaración de superficies con una superficie de pastizales de 33,0 ha. y solicita al Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia las ayudas destinadas a compensar las dificultades naturales en zonas de agricultura de montaña y desfavorecidas, ICM.

Calcular, aplicando el Decreto Foral 115/2008, de 17 de junio, que figura en el **Anexo II**, los siguientes valores:

a).- El coeficiente de explotación. (1,00 punto)

b).- El importe de la ayuda de ICM que le corresponde a la titular. (2,00 puntos)

PREGUNTA DE RESERVA.- Un baserritarra productor de manzana de sidra produce una media anual de 100.000 kg. de manzana. Pretende elaborar sidra con Label de Calidad "Euskal Sagardoa" con su producción, montando una planta de elaboración en su explotación.

Contando con que dispone de una nave para ubicar la bodega de sidra, definir la maquinaria, equipos y depósitos para elaborar y presentar la botella con el distintivo de sidra natural acogido al Label con la producción obtenida en su explotación. Se prevé que los lotes de embotellado van a ser de 10.000 litros.

Realizar un croquis con la distribución de dichos equipos, maquinaria y depósitos.

A AZTERKETA PRAKTIKOA

1. GALDERA.-X andreak 20.000 euroko laguntza ekonomiko bat eskatu dio Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, Nekazaritzarako Laguntzen Planetan ezarritakoarekin bat. Eskaera hori, baina, ez dago behar bezala beteta; ondorioz, Nekazaritza Sailak errekerimendua egiten dio interesdunari, jasotze-agiridun idazki baten bidez, aurkitu diren akatsak zuzentzeko.

a) Zer epe du X andreak akatsok zuzentzeko? (0,20 puntu)

b) Noiztik hasten da zenbatzen epe hori? (0,20 puntu)

Behin X andreak akatsak zuzenduta, espedientearen izapidetzea aurrera doa, eta, ondoren, Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuko buruak diru-laguntza ukatzeko ebazpen-proposamena egiten du.

c) Foru Administrazioako zein organok ebazten du espedientea? (0,20 puntu)

Emandako ebazpena X andreaki jakinarazten zaio, jasotze-agiriarekin.

d) Zer jarduketa egin ditzake X andreak laguntza ukatzeko ebazpenaren kontra, zer epe ditu horretarako, eta jarduketok zein organoren aurrean aurkeztu behar ditu? (0,40 puntu)

2. GALDERA.-Tratamendu fitosanitario bat zuzendu behar duzu, fruta-arbolen eta mahatsondoen sail batean; sail hori **I. eranskinean** identifikatuta dago. Ikus dezakezuenek, sailak muga egiten du errepide batekin, sarbide zein etxebizitza batzuekin eta erreka batekin. Mahatsondoak eta fruta-arbolak produkzio betean daude, eta kanpainako lehen tratamendua egingo da.

Tratamendua laster aplikatuko da mahastian, eta horretarako erabiliko den ekipoa **I. eranskinean** jasotakoa da. Ekipoak beharrezko kontrol-elementu guztiak ditu, tratamendua modu egokian egiteko.

Tratamendu fungizida eraginkor bat egin nahi da, ingurumenarekiko errespetuaren arloko irizpideak erabiliz, ingurumeneko arriskuak ahalik eta gehien gutxituz eta behar besteko eraginkortasunez, produkzio ona lortzeko.

a) Egin ezazu programa bat, kontrolak, erregulazioak nahiz egin nahi den tratamendua lortzeko kontuan hartu beharreko beste elementu batzuk jasotzen dituenena. (1,00 puntu)

b) Zer alderdi hartuko zenituzke kontuan ingurumeneko arriskuak ahalik eta gehien gutxitzeko? (1,00 puntu)

3. GALDERA.-Eskualdeko nekazaritza-bulego bateko arduraduna zara, eta kontsulta bat jaso duzu, Bizkaian okelatarako behi-aziendaren abeltzaintzako ustiategi bat abiarazi eta nekazaritza ekologikoari heldu nahi dion pertsona batena. Horretarako, laster, azienda eta beharrezko lurra eskuratuko ditu. Zehazki, informazioa eskatzen du Euskadiko nekazaritza ekologikoaren egiaztagiria lortzeko prozesuari, izapideei zein gaiari lotutako gainerako alderdiei buruz; orobat eskatu dizu bete beharko duen ustiapen-koadernoari buruzko aholkua.

Prestatu ezazu egiaztagiri hori lortzeko izapideen prozesua, eta jakinaraz iezaiozu, batetik, zein diren izapideotan parte hartzen duten organismoak eta, bestetik, abeltzainak ustiapen-koadernoaren zein atal bete behar dituen ustiategi mota horretarako. (1,00 puntu)

4. GALDERA.-Kudeaketa-zentro baten arduraduna zara; eta, nekazari gazte batek duela gutxi abiarazi duen abeltzaintzako ustiategiari buruzko zenbait galdera egiten dizkizu. Abeltzainak berezko belardiaren zenbait hektarea ditu eta abereak larrean egoteko erabiltzen ditu; horretaz gain, belardia siloratu eta ontzeko ere erabiltzen du. Kontsulta hau egin dizu:

Bere ustiategiaren siloratze-analisiari buruzko buletin bat aurkezten dizu, eta lortutako siloaren ezaugarriei eta kalitateari buruzko informazioa emateko eskatzen dizu.

Materia lehorra	% 18,5
Azidotasuna (ph)	5,1
Amoniakoa (NH ₃ /NT)	%15,3
Digerigarritasuna	% 60
Zuntza (FADM)	%37,2
Proteina (PB)	% 12,9
Errautsa	% 10

Ebaluatu itzazu parametroak eta egin ezazu siloratze-kalitatearen gaineko iruzkina. (1,00 puntu)

5. GALDERA.-Aholkulari diharduzu 5 hektareako mahatsondoen ustiategi batean, zeinak partzela homogenea baitu eta Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Deitura baitu. Mahatsaren barietatea Hondarribi Zuria da. Mahats-biltzea laster egingo da; orain arteko eboluzio sanitarioa egokia izan da, eta heltze homogenea lortu da partzela osoan.

Aurretiko kontrol batean, mahats-biltzea egiteko aurrez ikusitako data baino aste bat edo bi arinago, honako datu hauek lortu dira:

- Alkohol-gradu probablea: 9,13
- Azidotasun guztia, tartarikoa: 15,9

Txakolina egiteko, kalitate altueneko mahatsa erabili nahi da; horretarako, mahatsa biltzeko data egokia zehazteko egin beharreko kontrolen programa bat egin beharko duzu, erabilitako metodologia nahiz kontuan hartutako indizeak adierazita. (1,00 puntu)

6. GALDERA.-Gernikako Nekazaritzako Eskualdeko Bulegoan frutazain bati aholku eman behar zaio, 12.000 m²-ko azalerako partzela batean (landatzeko benetako azalera: 10.000 m²) kiwiak landatzeko.

Kalkula ezazu zenbat zuhaitz-landare eskatu behar dizkion frutazainak mintegizainari eta nolakoak izan behar diren, kontuan hartuta zurkaitza jartzeko sistema "T-bar" dela, eta kiwiak landatuko diren esparrua Bizkaiko hedatuena dela. (1,00 puntu)

7. GALDERA.- Okelatarako behi-azienda hazten duen Bakioko familia-ustiategi baten titularra den 34 urteko emakumeak errenta osoaren % 50etik gora nekazaritza-jardueran lortzen du.

Ustiategiaren batez besteko aldapa % 10 da; itsaso-mailaren gaineko kota 105 metro dira; ustiategiaren eta eskualde-errepidearen arteko distantzia, berriz, 1,5 kilometro da, eta, azkenik, azienda larri unitatea (UGM) hektareako 1.4tik beherakoa da, eta pertsona bi daude, ekonomikoki, titularraren menpe.

Azalaren adierazpenean, 33,0 ha larre deklaratu ditu. Bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari eskatu dizkio mendietan eta alde behartsuetan dauden zailtasun naturalak konpentsatzeko laguntzak, mendi-nekazaritzarako konpentsazio-ordainak (ICM).

Kalkula itzazu, 2008ko ekainaren 17ko 115/2008 Foru Dekretua aplikatuz (II. eranskinean dago), honako balio hauek:

a).- Ustiapen-koefizientea (1,00 puntu)


b).- Mendi-nekazaritzarako konpentsazio-ordainak (ICM) direla eta titularrari dagokion laguntzaren zenbatekoa. (2,00 puntu)

ERRESERBAKO GALDERA. Sagardo-sagarra ekoizten duen baserritar batek urtean, batez beste, 100.000 kg sagar ekoizten ditu. Bere ekoizpenarekin "Euskal Sagardoa" kalitate labela duen sagardoa egin nahi du, eta horretarako instalazio bat jarriko du bere ustiategian.

Ekoizleak badu nabe bat sagardo upategia kokatzeko; hori kontuan hartuta, zehaztu ezazu zer makina, ekipo eta upel behar dituen, batetik, bere ustiategiko ekoizpenarekin "Euskal Sagardoa" kalitate labela duen sagardo naturala egiteko, eta, bestetik, sagardo hori botilaratzeko. Botilaratzeko loteak 10.000 litrokoak izango direla aurreikusten dira.

Egin ezazu ekipo, makina eta upel horien banaketaren krokis bat.

I. ERANSKINA/ANEXO I



Arroyo

Córdoba • Info • Aviso Legal

II. ERANSKINA/ANEXO II